

CONCURSO LOGOTIPO PARA LA ASOCIACIÓN CULTURAL BANDA DE MÚSICA DE PAMPLONA "LA PAMPLONESA"

OBJETO DEL CONCURSO:

Se desea contar con un logotipo institucional básico para la Asociación LA PAMPLONESA, al que, además, sin que altere el anterior, pueda incorporar un elemento conmemorativo del centenario de la Banda (que se cumplirá en 2019). También éste elemento conmemorativo es objeto del concurso.

MOTIVO DEL LOGOTIPO: Relacionado con la actividad de la Banda, que deberá llevar incorporado de algún modo su nombre (como cabecera, pie,...), el cual a dichos efectos será:

ASOCIACIÓN CULTURAL
BANDA DE MUSICA DE PAMPLONA
"LA PAMPLONESA"
IRUÑAKO MUSIKA BANDA
KULTUR ELKARTEA

El logotipo será utilizado como imagen representativa en toda difusión de información de la Asociación, a través de página web, redes y medios,... y en su documentación, en la cual puede aparecer o no la dirección de su sede social:

C/ Monasterio de Irache, nº 6 bj

31011 Pamplona (Navarra)

En cuanto al elemento conmemorativo del centenario, su incorporación en cada documento o forma de comunicación será la que de forma específica decida la Junta Directiva de La Pamplonesa.

En cualquier caso, todo elemento de texto, deberá incorporarse en castellano y en euskera.

PREMIO:

500 Euros.

FECHA Y LUGAR DE PRESENTACIÓN:

Antes de las 14:00 Horas del 21 de abril de 2017

El lugar de presentación será la sede de la Asociación: C/ Monasterio de Irache, 6 bj. CP 31011

CONDICIONES:

1. Los trabajos deberán ser originales, técnica libre –siempre que sea posible su reproducción.

2. Solo podrá presentarse una propuesta por logo y por participante.
3. Los trabajos deberán presentarse en un sobre cerrado, tamaño A4, con la denominación en el exterior concurso logotipo. Dentro del sobre que no deberá llevar ningún elemento identificativo, se incorporará la propuesta con un lema por la parte trasera, sin datos personales del autor para preservar la identidad hasta el fallo del jurado. En un sobre cerrado, indicando en el exterior y con mayúsculas el lema consignado en la parte posterior del trabajo, se incluirá el nombre y apellidos del autor, dirección, e-mail y teléfono, y una declaración firmada indicando que el trabajo es original e inédito, aceptando expresamente las bases del concurso.
Se incluirá así mismo, pendrive o CD con el archivo del logotipo en formato digital (JPG o similar) que permita su reproducción y uso, con la resolución suficiente para poder utilizarlo en aplicaciones informáticas. El nombre del archivo debe coincidir con el pseudónimo con el que se concursará, con la extensión *jpg* o usada, separada por un punto. El pendrive o CD irá identificado mediante el lema con el que se concursará.
4. Una vez finalizado el plazo, un jurado de tres personas nombrado al efecto, será quién realice una propuesta, que deberá ser ratificada por la Junta Directiva de la Asociación Cultural Banda de Música de Pamplona LA PAMPLONESA. El premio será entregado en el acto que a tal efecto se convoque y al que se invitará al ganador.
5. La propuesta ganadora quedará en propiedad de la Asociación Cultural Banda de Música LA PAMPLONESA, que devendrá titular de los derechos de propiedad intelectual. La documentación relativa al trabajo premiado quedará en poder de la Asociación, que podrá hacer libre uso de la misma reservándose el derecho de publicación y difusión de los trabajos presentados, citando a su autor o autores, sin que ello devengue ningún derecho a los mismos. La documentación presentada no será devuelta.

LA PAMPLONESA IRUÑEKO MUSIKA BANDA KULTUR ELKARTERAKO LOGOTIPOA AUKERATZEKO LEHIAKETA

LEHIAKETAREN XEDEA:

LA PAMPLONESA Elkartearendako oinarrizko logotipo instituzionala sortu nahi da, aurrekoa aldatu gabe, bandaren mendeurrenaren (2019an beteko da) oroitzapenezko elementuren bat eransteko aukerarekin. Oroitzapenezko elementu hori ere lehiaketaren xede da.

LOGOTIPOAREN MOTIBOA: Bandaren jarduerarekin egonen da lotua. Bandaren izena txertatu beharko du moduren batean edo bestean (goiburu gisa, orri-oin gisa...), izena xede horretarako honako hau izanen delarik:

ASOCIACIÓN CULTURAL
BANDA DE MUSICA DE PAMPLONA
"LA PAMPLONESA"
IRUÑEKO MUSIKA BANDA
KULTUR ELKARTEA

Logotipoa Elkartearen inguruko informazio oro hedatzeko euskarrietan erabiliko da, horren irudi adierazgarri gisa, hala nola webgunean, sare sozialetan eta komunikabideetan... baita agirietan ere, non ager daitekeen – ala ez– elkartearen egoitzaren helbidea:

Iratxeko Monasterioaren kalea 6, behea
31011 Iruña (Nafarroa)

Mendeurrenaren oroitzapenezko elementuari dagokionez, La Pamplonesaren zuzendaritza batzordeak berariaz erabakiko du nola erantsi hori agiri edo komunikazio-forma bakoitzean.

Edonola ere, testu-elementu oro gaztelaniaz nahiz euskaraz erantsi beharko da.

SARIA:

500 Euro.

DATA ETA AURKEZTEKO TOKIA:

2017 ko Apirilaren 21a, 14:00ak baino lehen

Aurkezteko tokia Elkartearen egoitza izanen da: Iratxeko Monasterioaren k. 6, behea. CP 31011

BALDINTZAK:

1. Lanak originalak eta teknika librean eginak izanen dira –betiere erreproduzitu badaitezke–.
2. Parte-hartzaile bakoitzak logo-proposamen bat baino ezingo du aurkeztu.

3. Lanak A4 neurriko gutun-azal itxian aurkeztuko dira, eta horren kanpoaldean “logotipo-lehiaketa” idatzi behar da. Gutun-azalaren barruan ez da identifikazio-elementurik egonen; bertan proposamena sartuko da, eta atzeko aldean lelo bat, egilearen datu pertsonalik gabe, egilearen identitatea gordetze aldera epaimahaiak epaia eman arte. Gutun-azal itxi batean – kanpoaldean letra larriz idatziko da lanaren atzeko aldean erabilitako leloa– erantsiko dira egilearen izen-abizenak, helbidea, e-maila eta telefonoa, eta egileak sinatutako aitortpena, non adieraziko baitu aurkezten duen obra jatorrizkoa eta argitaragabea dela, eta berariaz onartzen dituela lehiaketaren oinarriak.

Era berean, pendrive edo CD bat erantsiko da, logotipoaren artxiboa formatu digitalean duena (JPG edo antzekoa), haren erreprodukzioa eta erabilera ahalbidetzeko, betiere aplikazio informatikoetan erabiltzeko moduko bereizmen nahikoarekin. Lehiaketan zein izenorderekin parte hartu eta hori bera izanen da artxiboaren izena, betiere jpg edo delako luzapenarekin puntu batez bereizita doala. Pendrive edo CDan lehiaketan erabilitako leloa jarriko da, identifikazio gisara.

4. Behin epea amaituta, xede horretarako izendatutako hiru laguneko epaimahaiak proposamen bat egingen du, eta LA PAMPLONESA Iruñeko Musika Banda Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak berretsi beharko du. Saria banatzeko ekitaldi bat antolatuko da, bertara irabazlea gonbidatuko delarik.

5. LA PAMPLONESA Iruñeko Musika Banda Kultur Elkartea izanen da proposamen irabazlearen jabea, eta jabetza intelektualeko eskubideen titular bilakatuko da. Saritutako lanaren inguruko agiriak Elkartearen esku geratuko dira, eta honek libreki erabili ahalko ditu, eta eskubidea izanen du aurkeztutako lanak argitaratu eta hedatzeko, egileen aipamena eginda, baina haien alde inolako eskubiderik sortu gabe. Aurkeztutako agiriak ez dira itzuliko.